



UDABERRI HEZIGARRIA

Valentziako Erkidegoko eskola-kontseilua "Udal-eskola kontseiluak, ikaskuntza-guneen sortzaileak" izeneko jarduna prestatzen ari da maiatzaren 13, 14 eta 15ean burutuko den "Udaberri hezigarria" ekimenerako.

Hemen, Nafarroan, Tuteran izan ezik, ez dago bere horretan udal-eskola kontseilurik duen herririk; alabaina, herri askok dute eskola-kontseilua, eta herrietan ikastetxe bakarra egonik, udal-kontseilutzat har daitezke. Horiei zuzentzen gataizkie.

"Udaberri hezigarria" Valentziako Generalitateak eta Udalak antolatu dute, guztiok buruan ditugun helburuak (ikaslearen arrakasta eskolan eta arrakasta pertsonala) lortzeko erakundeen arteko lankidetzaren posible ez ezik, ezinbestekoa dela erakusteko.

Parte hartzeko, autonomia-erkidego bakoitzetik lan zehatz bat aurkeztea proposatu dute, han bistaratzeko.

Proposamen hori baliatuko dugu toki-erakundeak ikastetxeetara, eta alderantziz, hurbiltzeko.

Badakigu, jakin ere, ikastetxeetan eguneroko bizitzako hainbat alderdiri nahiz herrietako historiari buruzko lan oso interesgarriak egiten direla, horiei balioa emateko eta zeregin honetarako baliagarriak izan daitezkeenak. "Udaberri hezigarria" ekimenean parte hartzearekin batera, jarduera bat gara dezakegu hemen.

Horretarako, parte hartzeko oinarri hauek bidali dizkigute.

"Udal-eskola kontseiluak, hiri hezitzaileetarako aldaketa-motorra"

OHIKO GALDERAK

Udal-eskola kontseiluek jarduera onak aurkezten parte har dezakete, eta horiek 2016ko maiatzaren 13, 14 eta 15ean Valentzian burutuko den udaberri hezigarrian erakutsi.

1) Nola har dezakegu parte?

90 segundoko bideoak (originalak eta eredugarriak) prestatu behar dituzue estatuko edozein hizkuntza ofizialetan.

2) Zer jaso behar duzue bideo horretan?

Aurkezpen labur bat, eta udalerriko eskola-kontseiluak egiten ari den lana, parte-hartzea oso garrantzitsua dela azpimarratuz.

3) Nortzuek egin behar dute bideoa?

Udal-eskola kontseiluko kide batek.

- 4) Nola aurkeztuko da bideoa?

Valentzia Erkidegoko eskola-kontseilariaren web-orrian, 'udaberri hezigarria' atalean, "Udal-eskola kontseiluak, hiri hezitzaileetarako aldaketa-motorra" atalaren barnean, bideoaren esteka kopiatzen da izena emateko formularioan.

- 5) Eta nola jakinen da norena den bideo bakoitza?

Bideoa gehitu behar den atalean bertan dagoen izena emateko formularioa eta arduradunaren datu pertsonalak beteko dira.

- 6) Zein egunetara arte utz daiteke igotako bideoa izena emateko formularioarekin batera?

Apirilaren 22ra arte (ostirala), gauerdiko 12:00ak arte.

- 7) Zer egingen da jarduera on guztiak bildu ondoren?

Apirilaren 29an (ostirala), Hezkuntza Kontseilaritzan elkartuko gara (erkidego bakoitza bere kontseilaritzan) parte hartu duten pertsona guztiekin, eta guztion artean bozkatuko dugu zein udal-eskola kontseiluk ordezkatu duen gure erkidegoa.

- 8) Halako ekimen interesgarria jende gehiagorekin partekatu beharko genuke, ala? Web-orrian ikusi ahal izateaz gain, noiz eta non partekatuko dira ekimen horiek guztiak?

Udaberri hezigarriarekin batera; hau da, maiatzaren 13an, Valentziako 'La Beneficiencia' kultura-gunean.

- 9) Gure erkidegoak soilik hartuko du parte?

Autonomia-erkidego guztiak daude gonbidaturik 'udaberri hezigarria' izeneko jai handi honetan parte hartzera.

- 10) Eta nola hartuko dute parte?

Ba, modu berean, alegia:

- a. Udal-eskola kontseiluak bideoa landuko du.
- b. Nafarroako Eskola Kontseiluaren web-orrira igoko da. Bideoa aurkezteko muga-eguna apirilaren 22a izanen da.
- c. Apirilaren 29an, guztion artean, udaberri hezigarrian gure erkidegoa ordezkatu duen bideoa aukeratu dugu. Horretarako, jardunaldi bat egingen dugu Nafarroako Eskola Kontseiluaren ekitaldi-aretoan; horretan, bideo guztiak ikusiko ditugu, eta gustukoena aukeratu dugu. Hezkuntza-komunitateak eta udal-komunitateak parte hartu ahal izanen dute.
- d. Eta, azkenik, maiatzaren 13an, Valentzian, guk bidalitakoa ikusiko da, aukeratu duen bideoaren egileak bertan direla. Garbi utzi nahi dugu ez dela lehiaketa bat. Aurkeztuko diren bideo guztiak ziur onak direla, baina bakar bat aurkez daiteke.

Badakigu, jakin ere, ikastetxe askotan ekintzak lantzen dituztela herritarrekin eta udal-erakundeekin, eta horiek baliagarriak izan daitezkeela. Esan bezala, horiek gizartera



zabaldu behar ditugu.

Eskola-kontseiluak animatu nahi ditugu ekimen honetan parte hartzera, bakoitza bere udalaren laguntzarekin, egiten diren eta hezkuntzaren kalitatea ezagutzeko aukera eman diezaguketean lanak ezagutu ahal izateko.

Edozein zalantzatarako jarri harremanetan **Nafarroako Eskola Kontseiluarekin (Aitor Etxarte)**, edo **Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin (Javier Albizu)**.